



ATAUNGO UDALA

2022ILAN0002

ADMINISTRAZIO OROKORRA ESKALAKO ADMINISTRARI AZPIESKALAKO plaza lehiaketa bidez hornitzeko hautaketa-prozesuan onartutako eta baztertutako izangaien behin betiko zerrenda, merezimenduak egiaztatzeko epea eta Epaimahai Kalifikatzailearen izendapena.

Alkatearen 2023ko uzatailaren 10eko Ebazpenaren bitartez, Ataungo Udaleko ADMINISTRARI plaza merezimendu-lehiaketaren bidez hornitzeko hautaketa-prozesuaren oinarri orokorrak eta espezifikoak onetsi ziren (2022ko abenduaren 19 Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 238. zk.).

9. oinarri orokorrean ezarritakoarekin bat etorrituz, hautaketa-prozesu horretan parte hartzeko eskabideak aurkezteko epea eta akatsak zuzentzekoa amaituta, Alkatetzak ebazpena emango du onartutakoen eta baztertutakoen behin betiko zerrendak onesteko. Ebazpen horretan, autobalorazioaren inprimakian lortutako puntuazio osoa eta alegatutako hizkuntza-eskakizuna ere jasoko dira. Zerrenda horiek beherantz ordenatuko dira, guztizko puntuazioaren arabera, puntuazio handiena duten izangaiei alegatutako merezimenduak egiaztatzeko eskatze aldera (8. eta 10. oinarri orokorrak).

Bestalde, kudeaketa-gomendioa formalizatzeko Gipuzkoako Foru Aldundiarekin sinatutako hitzarmenaren hirugarren klausulari jarraikiz, hark Epaimahaian parte hartzeko proposatzen dituen pertsonak jakinarazi ditu. Beraz, ebazpen honetan bertan izendatu behar dira, bigarren klausulan eta 17. oinarri orokorrean aurreikusitakoa betez.

Horregatik guztiagatik, alkate honek

EBAZTEN DU

Lehenengo.- Ataungo Udaleko ADMINISTRARI plaza merezimendu-lehiaketa bidez hornitzeko hautaketa-prozesuan onartutako eta baztertutako izangaien behin betiko zerrenda, ebazpen honen I. eranskinean jasotakoa, onestea.

Bigarren.- Ebazpen hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengotik hasita 10 egun balioduneko epean parte hartzeko eskaeran alegatutako merezimenduak egiazta ditzatela eskatzea II. eranskinean zerrendatutako izangaiei.

Horretarako, udalaren egoitza elektronikoaren LAN ESKAINTZA atalean eskuragarri dagoen «Merezimenduak egiaztatzea» inprimaki elektronikoa erabili beharko dute.

Errekerimendu honek ez du aurrez juzgatzen aipatu pertsonak alegatutako merezimenduen egiazkotasuna, horiek egiaztatzea eta baloratzea Epaimahai Kalifikatzaileari baitagokio.

Oinarrietan aurreikusitakoaren arabera ofizioz egiaztatu ezin diren merezimenduak egiaztatzea eskatuko da bakarrik.

Parte hartzeko beharkizun gisa eskatzen den hizkuntza eskakizuna egiaztatua ez duten eta merezimenduak egiaztatzeko eskatu zaien pertsonak kautela moduan aurkeztuko dituzte egiaztatgiriak.



ATAUNGO UDALA

2022ILAN0002

Hirugarren.- Ondorengo hauek Epaimahai Kalifikatzaileko kide izendatzea:

Mahaiburu titularra: Ainhoa Iriondo Odriozola; ordezkoa: Asier Coloma Ugartemendia.

Mahaikideak:

- Titularra: Ainhoa Gainberri Txintxurreta; ordezkoa: Maria Begoña Alkorta Yarza.
- Titularra: Beñat Sardon Quintana; ordezkoa: Ainara Aguirre Jauregui.
- Titularra: Gorka Gorostiza Arbulu; ordezkoa: Alicia Etxeberria Urra. IVAPen ordezkaririk.
- Titularra: Itziar Gallastegi Arregi; ordezkoa: Iratxe Etxeberria Arizmendi. IVAPen ordezkaririk euskara-probetarako.

Idazkari titularra: Nerea Ibarrola Urraca; ordezkoa: Iñaki Ibarrola Urraca.

Azken bokala izan ezik, izendatutako gainerakoak Gipuzkoako Foru Aldundiko karrerako funtzionarioak dira, A1 azpitaldekoak, eta haiei dagokie merezimenduak baloratzea.

Ebazpen honen aurka, prozesutik behin betiko baztertutako pertsonak administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakete zuzenean Administrazioarekiko Auzien Donostiako Epaitegietan, bi hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Hala ere, horren aurretik aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio alkate-lehendakariari, argitaratzen den egunaren biharamunetik hasi eta hilabeteko epean. Kasu horretan, ezin izango da administrazioarekiko auzi errekurtsorik jarri berraztertze errekurtsoa berariaz ebatzi arte edo presuntziosko ezespina gertatu arte. Nolanahi ere, egoki irizitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke.

DEIALDIA: ADMINISTRAZIO OROKORRA ESKALAKO ADMINISTRARI AZPIESKALAKO PLAZA LIBURUTEGIKO LANPOSTUA HORNITZEKO.

I. ERANSKINA:

Onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda

| NAN DNI | Abizenak eta izena Apellidos y nombre | Auto- balarazioa Auto- valoración | Hizkuntza eskakizuna Perfil lingüístico |
|--------------------|--|--|--|
| 72xxx260B | GARAZI ETXEBERRIA BARANDIARAN | 94.10312 | 3 |
| 72xxx738X | AINHITZE ZINKUNEGI HUARTE | 60.3054 | EGA |
| 34xxx176A | MARIA CARMEN ZORITA ARRATIBEL | 42.7146 | C2 |



ATAUNGO UDALA

2022ILAN0002

| NAN DNI | Abizenak eta izena Apellidos y nombre | Auto- balorazioa Auto- valoración | Hizkuntza eskakizuna Perfil lingüístico |
|--------------------|--|--|--|
| 72xxx055S | ANDREA ANTON GONZALEZ | 22.85122 | C1 |
| 72xxx1249C | MADALEN SAIZARBITORIA SUINAGA | 20.00 | 4 |
| 72xxx402A | SAIOA CANO CORTAJARENA | 20 | 3 |
| 73xxx725v | OIHANE GRELA GARCIA | 20 | - |

Baztertuen zerrenda:

- Txanda irekia – sarbide orokorra

Ez dago iñor


OHARRAK:

- Onarpenen zerrendan agertzeak ez du esan nahi interesdunei aitortzen zaienik hautaketa-prozesuan eskatutako baldintzak betetzen dituztela.
- Auto-balorazioak izangaiak bere eskaeran alegatutako eta auto-baloratutako merezimenduen emaitza baino ez du islatzen. Ez du esan nahi puntuazio hori zuzena denik.

II. ERANSKINA:

Parte hartzeko eskaeran alegatutako merezimenduak egiaztatu behar dituzten izangaiak

| NAN DNI | Abizenak eta izena Apellidos y nombre | Auto- balorazioa Auto- valoración | Hizkuntza eskakizuna Perfil lingüístico |
|--------------------|--|--|--|
| 72xxx260B | GARAZI ETXEBERRIA BARANDIARAN | 94.10312 | 3 |
| 72xxx738X | AINHITZE ZINKUNEGI HUARTE | 60.3054 | EGA |
| 34xxx176A | MARIA CARMEN ZORITA ARRATIBEL | 42.7146 | C2 |
| 72xxx055S | ANDREA ANTON GONZALEZ | 22.85122 | C1 |
| 72xxx1249C | MADALEN SAIZARBITORIA SUINAGA | 20.00 | 4 |
| 72xxx402A | SAIOA CANO CORTAJARENA | 20 | 3 |
| 73xxx725v | OIHANE GRELA GARCIA | 20 | - |

| Sinatzailea | |
|---|--|
|  | Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen sinesgarritasuna ziurtatzeko jo interneteko orrialde honetara: https://uzt.gipuzkoa.eus/PortaIV/r/0/15/AAAAAQKJP.WWWZ |